

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

"Manual de Búsqueda y Salvamento Terrestre" aurkeztu da, nazioarteko metodologia batean oinarritutako pertsona desagertuen bilaketarako gazteleraz idatzitako lehen gidaliburua

Liburua dohain deskarga daiteke Nafarroako Gobernuaren webguneko zerbitzaritik

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Nafarroako Gobernuak eta [Sosdesaparecidos elkarteak](#) gaur goizean aurkeztu dute Madrilen pertsona desagertuen bilaketarako [gaztelerazko lehen gidaliburua](#). Nazioarteko metodologia bat aplikatzen du gidaliburuak, AEB, Kanada, Australia, Erresuma Batua edo Suitza bezalako herrialdeetan erabiltzen dena. Gainera, planifikazioko eta lehorreko bilaketa eta salbamenduko kudeaketako mundu mailako estandarretan oinarritzen da.

Lanaren aurkezpenean izan dira Javier Bayona Nafarroako Suhiltzaileen zuzendaria eta lanaren bi egileak, José Vicente Romero Ballestero, Auritzeko parkeko suhiltzailea eta landa-eremuetako bilaketetako koordinatzailea, eta Manuel Jabalera, Andaluziako larrialdi-teknikaria. Bertan izan dira baita Joaquín Amills Sosdesaparecidos Elkartearen presidentea eta Jaime Cereceda Desagertuen Zentro Nazionaleko zuzendaria.

Nafarroako Gobernuak editatu du gidaliburua, Sosdesaparecidos Elkartearen ekimenez, eta bai autoreek eta bai kolaboratzaileek eskuzabalki hartu dute parte proiektuan. 20 parte-hartzaileen artean daude Robert J. Koester eta Kenneth Hill, lehorreko bilaketa eta salbamenduari lotutako hainbat liburu eta artikuluren egileak.

Pertsonen desagertzean lanean ari diren elkarte, organizazio eta fundazio desberdinek adierazitako eskaera jarraikoaren emaitza da lana,



Ezkerretik eskuinera: Javier Bayona, Joaquín Amills, José Vicente Romero eta Manuel Jabalera, liburuaren aurkezpenean.

eta estatu mailan metodologia, protokolo eta kudeaketa-sistema komun bat izatea du helburu.

Gidaliburuaren edukia

Gidaliburuaren helburu nagusietako bat da bilaketa-eremu bat modu zuzenean zehazten erakustea. Behin eremua mugatuta, zenbait fasetan zehazten da bilaketa. Lehen fasean, "hasierako erantzun-fasea" bezala ezagutzen dena, informazioa datu estatistikoekin osatzen da, desagertu den pertsona aurkitzeko probabilitate gehiago dauzkaten eremuak zehazteko.

Bigarren fase batean, "bilaketa planifikatuaren fasea" deitzen zaiona, probabilitate-mapa bat ezartzen da eremua alde eta/edo segmentuetan banatuz. Segmentu horietan bilaketa-estrategia eraginkor, zehatz eta ebidentzietan oinarritutakoak konbinatzen dira, eta baita lurraren analisia, erabaki-puntuak, lekuen analisia, area-probabilitatea zehazteko metodoak, detekzio-probabilitatearen estimazioa edo arrakastaren probabilitatearen kalkulua.

Beste aspektu batzuk ere landu dira lanean, hala nola orientazio-senaren azterketa bat, desagertutako pertsonen kategorien araberako klasifikazio bat edo teknologia berrien erabilera, GPSak, GISak (geografia-informazio sistemak) edo RPAk (dronak) kasu. Lanaren bukaeran dokumentu gako batzuk erantsi dira bilaketaren kudeaketarako, nazioartean erabiltzen direnak.